

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

161. zenbakia**Data 2013-08-26****15 orria**

7 Udal Administrazioa
BEIZAMAKO UDALA
ATERPETXEko araudia.

BEIZAMAKO UDALA

Iragarkia

2013ko martxoaren 26an izandako osoko bilkuran behin betiko izaerarekin onartua geratu zen Beizamako aterpetxe-ko araudia, zeina Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den ezagutza orokorrerako.

Beizama, 2013ko abuztuaren 14a.—Begoña Garmendia Vazquez, Alkatea. (8071)

1. artikulua.

Araudi honen helburua, herri-guneko Eskola Zaharra eraikinean kokatuta dagoen, Beizamako Udal Aterpetxearen erabilera eta funtzionamendua arautzea da.

2. artikulua.

Oro har, gizabanakoek, taldeek, elkarteek, ikastetxeek, erakundeek zein enpresek erabil dezakete aterpetxearen instalakuntzak eta bizi eskeinitako esperientziak.

1. OSTATU HARTZEKO BALDINTZAK

3. artikulua.

Establezimenduak ostatua eta esperientziak urte osoan zehar eskainiko ditu, denboraldi bakoitzerako onetsitako zerbitzu eta egunen egutegiaren arabera erabakitako egunetan.

Establezimendua irekita egongo da hitzartutako esperientzia daudenean.

Ostatua eskaintzeko pertsona minimoa 4koa izango da, lagun gutxiagotenzat ez delarik irekiko.

Ostatu eskatzen duten gizabanakoek adin nagusikoak behar dute izan; eta adin txikikoak baldin badira, dagokion baimena eduki behar dute.

Talde orok izendatu beharko du arduradun bat aterpetxe-ko egonaldi-ko.

4. artikulua.

Adin txikiko taldeen kasuan, heldu batek lagunduta ostatu hartu behar dute proportzio honetan:

— Hogeita (20) adin txikikorengatik heldu bat gutxienez.

— Taldekideak sei urtetik beherakoak baldin badira, proportzioa handitu egingo da: Gutxienez heldu bat hamar (10) umeko.

5. artikulua.

Esperientzia eskaera kontratu bidez formalizatuko da, instalazioa aldi batean erabiltzekoa, aterpetxe-ko Zuzendaritza bideratua eta izenpetua. Dokumentu horrek egiaztatuko ditu zein esperientzia kontratatu diren eta aterpetxera iristean aurkeztu beharko da.

6. artikulua.

Ohizko araua izango da aterpetxera iristea kontratatutako lehen esperientziatik ordubete aurretik, gutxienean, eta irtetea, gehienez, azken esperientziatik ordubete geroago; bestela, behar bezala justifikatu beharko da.

7. artikulua.

Aterpe-kideek egonaldia luzatu ahalko dute tokirik izanez gero. Luzapen eskaerei ezetza eman ahalko die Zuzendaritzak, horretarako arrazoirik egonez gero, hala nola, bertan edo herrian jokaera txarra izanagatik.

8. artikulua.

Logela haundian lo egiteko tokiaren atribuzioa ahalik eta erabiltzaile gehien ostatu hartu ahal izateko irizpidearekin egingo da, establezimendua hobekien antolatzeke eta aprobetxatzeko asmoarekin.

2. ERRESERBAK

9. artikulua.

Kontsultak bai telefonoz, zein posta elektronikoz bideratu daitezke, baina, erreserbak idatziz formalizatuko dira.

10. artikulua

Erreserba egin ahal izateko faktore baldintzazalea, libre geratzen direneko toki kopurua izango da.

Erreserba formalizatzeko eta finkotzat emateko aurrekontuaren %30eko aurrerakina ordaindu beharko da. Zuzendaritzak horren ordainagiria emititu eta bidaliko diolarik.

Aterpetxe osoa hartzen duten taldeek 200 €ko fidantza aurreratuko dute erreserba egiterakoan, sortu litezkeen kalteei aurre egiteko.

Erreserba formalizatzeko epea erreserba aurrekontua jaso deneko egunetik bost (5) egunekoa izango da. Zuzendaritzak ez du erreserbarekiko konpromisorik hartuko, bost eguneko epea igarota, ordainketa egin ezean.

Urteko egun jakinetan, hala nola, zubi, aste santu, uda, eguberri edo hala erabakitzen diren beste batzuetan, Zuzendaritzak baldintza espezifikokoak ezarri ahalko ditu erreserbak egiteko baldintzei dagokionean.

Erreserbarik egin gabe ostatu eskatzen dutenak onartuak izango dira, baldin eta tokirik badago.

3. ORDAINKETAK ETA EZEZTATZEAK

11. artikulua.

Kontuen argitzea zerbitzu-esperientzia burutu aurretik egingo da:

— Izango diren esperientzia guztien kostua.

— Instalazioak gaizki erabiltzeagatik kalteak sortu baldin badira, kalte ordainak, esperientzia amaitu baino lehen kitatu beharko dira.

12. artikulua.

Esperientziare aurretiko 5 egunetan gauzatutako ezeztapenek egindako aurrerakina galduko dute.

4. ELKARBIZITZARAKO ARAU OROKORRAK

13. artikulua.

Elkarbizitzarako arau sozialak gorde beharko dituzte aterpe-kideek eta hortarako Aterpetxeko arduradunaren oharrak jarraituko dira.

Erabiltzaileek bereziki begiratuko dituzte honako gizalege hauek:

- Etxeko zapatilak erabili instalakuntzetan.
- Aterpetxe barruan ezin da erre, iskanbilarik sortu eta korrika ibili.
- Animaliak ezin dira aterpetxe barruan egon.

- Besteen loaldia errespetatu gauean, loaldi ordutegian isiltasuna mantenduz.
- Barne Araudi hau betearazteko arduradunek emandako oharrei jaramon egin.

Aterpetxearen ordutegiak errespetatuko dira:

- Gosariak: 9:00-10:00.
- Bazkariak: 13:30-14:30.
- Afariak: 20:00-21:00.

- Loaldia eta isiltasun osoa: 23:00-8:00.

14. artikulua.

Aterpetxeak Informazio Taula bat izango du erraz ikusteko moduan jarrita. Zuzendaritzak taula horretan jarriko ditu jendaurrean xedapen orokorrak eta zehatzak, establezimenduan indarrean egongo direnak. Bereziki, zerbitzuen ordutegiak eta aterpetxeko instalazioen funtzionamenduari dagozkionak.

5. OSTATUA

15. artikulua.

Aterpe-kideek ohe edo litera plaza bana izango dute eta dagokien armairua. Plaza bakoitzak koltxoi bat bere azpiko izararekin, burukoa bere azalarekin eta manta bat eta izango ditu.

Maindire eta eskuoihal zerbitzua eskatzen duten Aterpe-kideek ezarritako tarifa ordaindu ondoren eskuratuko dituzte, baina ohea egitea haien kontu geratuko da.

16. artikulua.

Logeletan honela jokatu da:

- Atsedean hartzeko, eta jarduera lasaiak burutzeko erabiliko dira soilik.
- Ez da jaten, edaten ezta erretzen.
- Altzariak ez dira lekuz aldatzen eta ohe erropak ez dira ateratzen

6. SUKALDE ETA GARBIGAILU ERABILERA

17. artikulua.

Sukaldea, sukalde zerbitzua hartu duten aterpe-kideek soilik erabiliko dute. Sukalde zerbitzua banakako aterpe-kideek eta aterpetxe osoa hartzen duten taldeek bakarrik erabili ahal izango dute ezarritako tarifa ordaindu ondoren; Tresneria, ontziteria, sukalde tresnak eta osagarriak hauen erabilgarri egonik.

Sukaldean taldeko bi pertsonak gehienez sukaldatuko dute, aterpetxeko sukaldariekin lana era koordinatuan eginez eta Aterpetxearen elikagaiak ez dira erabiliko.

Sukalde tresnak ez dira sukaldetik aterako, ezta beste erabilera batzuetan ibiliko.

Sukaldea topatu bezain garbi utziko da.

18. artikulua.

Garbigailua erabiltzeko zerbitzua eskatzen duten aterpe-kideek ezarritako tarifa ordaindu ondoren tresneria eta beste elementuak bere esku izango dituzte; erabilitako gela eta tresneria garbitu eta zaindu beharko dituztelarik.

7. OTORDUAK

19. artikulua.

Otordua baino 15 minutu lehenago talde bakoitzeko norbaitek mahaia prestatuko du

Aterpe-kideek otorduetan laguntzen dute: Jakiak mahaira gerturatzen, ogia eta edaria zerbitzatzeko, eta platerak eta mahaia jasotzen.

8. ALTZARIAK, KALTEAK ETA KONPONKETAK

20. artikulua.

Aterpe-kideak arreta berezia izango du eraikin, instalazio eta altzarien zaintzarekin, batez ere bere ohe/litera eta armairuarekin; Altzari eta arropak ez dira lekuz aldatzen, eta ez da itsatsiko txartelik edo kalte egingo horma, ate edota leihoetan.

Leporatu dakizkiokeen kalteez arduratuko da; eta dagokionean gertatutakoaren berri eman beharko du.

9. ATERPETXE OSOA HARTZEN DUTEN TALDEEK

21. artikulua.

Egonaldia bukatzean taldearen arduradunarekin instalakuntza ikuskatuko da kalteen bila: Kalte-taularen arabera kopurua deskontatuko da fidantzatik, gainerakoa itzuliz.

22. artikulua.

Aterpetxe osoa hartzen duten taldeek arau bereziak dituzte: Egonaldian zehar etxea garbi mantentzea beren ardura da eta sarrera eta irteera ordua aurretiaz hitzartuko da.

10. BISITAK

23. artikulua.

Oro har, Zuzendaritzaren baimenarekin kontaktu gabe, aterpe-kideei ezingo zaie bisitarik egin aterpetxearen instalazio barruan, ez eta beste inor gonbidatu otorduetarako. Bisitak adierazitako jarraibideen arabera gauzatuko dira.

11. ATERPEKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

24. artikulua.

Aterpetxea erabiltzen dutenek eskubide hauek izango dituzte:

- Instalazioak eta kontratatutako esperientziak araudiaren arabera erabiltzea.
- Esperientzien prestazioen arau eta informazio osoa zehatza eta objektiboa jasotzea.

- Kontratuaren nondik norakoak ziurtatzen dituzten agiriak lortzea eta dagozkion fakturak zehatz eta zuzenak.
- Erreklamazio liburua eskuragarri izatea, bertan kexak adierazteko.
- Indarrean dagoen araudian agertzen den beste edozein eskubide.

25. artikulua.

Aterpetxea erabiltzen dutenen betebeharrak honako hauek izango dira:

- Araudiak ezarritakoa eta Aterpetxeko zuzendaritzak esandakoa errespetatzea.
- Instalazioa egoki erabiltzea.
- Zuzendaritzari berri ematea, ikusten duten matxura, kalte edo gorabehera instalazioen funtzionamenduan.
- Beste erabiltzaileen eskubideak errespetatzea, batez ere partekatzeareto eta gune komunetan.
- Aterpetxea kontratatua izan den jardueretako bakarrik erabiltzea.
- Ezarritako prezioak ordaintzea aterpetxeko instalazioak erabiltzeagatik eta esperientziak izateagatik.
- Irekiera eta itxiera ordutegiak errespetatzea, batez ere gaueko orduetan eta langileen irizpideei jarraituz.
- Beharko balitz eta Zuzendaritzak eskatuz gero, etxeko lan xumeetan laguntzea aterpetxeak ondo funtzionatzeko.

- Indarrean dagoen Araudiak eska lezakeen beste edozer.

26. artikulua.

Aterpetxeko instalazioetan debekatua dago:

- Erretzea eta edozein droga mota kontsumitzea eta trafikitzea.
- Animaliek ez dute sartzerik.
- Jangelatik kanpo jatea edota edatea.
- Ohe gainean oinetakoekin ibiltzea eta jolastea.
- Logeletan iskanbila sortzea.
- Logeletatik kanpo maindire, manta eta ohe arropa ateratzea.
- Leihoetatik hondakinak botatzea.
- Aterpetxeko material edo makinaria manipulatu edota konpontzen saiatzea.

12. ERABILTZEKO BALDINTZAK ETA TARIFAK

27. artikulua.

Aterpetxeko esparruak eta zerbitzuak erabiltzeagatik, indarrean dauden tarifak ordaindu beharko dira, Beizamako Udaletxeak onartutakoak.

13. ZIGOR ERREGIMENA

28. artikulua.

Araudi honetan ezarritakoa, Beizamako Udaletxeak erabakitako instrukzioak edo Aterpeko Zuzendaritzak ezarritakoa ez betetzea, zigor daitekeen administrazio huts egitea izango da. Huts egiteak arinak, larriak edo oso larriak bezala sailkatzen dira.

29. artikulua.

Hutsegite arinak; larriak edo oso larriak kontsideratzen ez diren hutsegiteak izango dira: Zuzendaritzak emandako jarraibideak ez jarraitzea.

30. artikulua.

Hutsegite larriak honakoak izango dira:

- Hiru huts egite arin edo gehiago egitea.
- Asmo txarrez edo arduragabeki gelak, aretoak, komunak edo utzitako materialak hondatzea.
- Zerbitzuen funtzionamenduari dagokionean, beste erabiltzaile edo langile batzuen elkarbizitza oztopatuz, aurkako jarrera bat mantentzea.
- Erabilitako aterpetxeko zerbitzuen salneurri publikoak ez ordaintzea.

31. artikulua.

Hutsegite oso larriak izango dira:

- Hutsegite larriak errepikatzea.
- Instalazioak, materialak, gelak edo beste aretoak beste xede batekin erabiltzea, eta ez berez daukanarekin.

32. artikulua.

Ezarriko den zigorra zehazteko, kontuan hartuko dira hutsegilearen fede txarra, huts egiteak sortutako kalte ekonomikoak, huts egitearen entzute eta garrantzi publikoa, eta beste irizpide graduatzaile eta objektiboak.

33. artikulua.

Ordenantza honetan agertzen diren huts egiteen erantzule zuzenak, huts egiteen egile materialak izango dira, egitez edo utzikieriaz, baldin eta adin txikikoak ez diren edo egotzietan arrazoiren bat dagoenean. Orduan zaintza legala daukaten gurasoak, tutoreak edo pertsonak erantzungo dute.

Egileak erantzungo du instalazioetan edota materialetan egindako kalteez.

34. artikulua.

Honako hauek izango dira arau-hausleei ezarriko zaizkien zigorrak:

1. Arau-hauste arinengatik:

- Ohartarazpena.
- Sei (6) € eta hogeita hamar (30) € bitarteko isuna.

2. Arau-hauste larriengatik:

- Hogeita hamar (30) € eta ehun eta berrogeita hamar (150) € bitarteko isuna.
- Aterpetxetik botatzea.

— Aterpetxean sartzeko debekua gehienez ere urtebeteko epean.

— Eragindako kalteen indemnitazioa.

3. Arau-hauste oso larriengatik:

— Ehun eta berrogeita hamar (150) €eta sei ehun (600) €bitarteko isuna.

— Aterpetxetik botatzea.

— Aterpetxean sartzeko debekua 1-5 urteko epean.

— Eragindako kalteen indemnitazioa.

35. artikulua.

Honetan aurreikusten diren arau-hauste eta zigorrak preskribitu egingo dute: Arinak, larriak edo oso larriak diren kontuan harturik, hiru hilabetera, sei hilabetera edo urtebetera, hurrenez hurren.

Arau-hausteen preskripzio-epea haiek egin zirenetik zenbatuko da, eta zigorrena, berriz, haiek ezartzeko ebazpena finkoa den unetik.

36. artikulua.

Udalari dagokio zigorrak ezartzea.

14. ERREKLAMAZIOAK

37. artikulua.

Aterpe-kideen eskubideak bermatzeko xedearekin, Erreklamazio-liburu bat jarriko da haien esku. Aterpe-kide orok erabili ahalko du Erreklamazio-liburua; NAN edo pasaportearen erakutsi ondoren. Liburuan, erreklamazioarekin batera, bere izen-abizenak eta helbidea adierazi beharko ditu. Garaiz eta behar bezala, idatziz erantzungo zaio erreklamazioari eta, hala balegokio, tokian bertan eta ahoz.

13. AZKEN XEDAPENAK

Lehen: Araudi honek dioenaren inguruan inolako zalantzarik badago, Aterpetxeko Zuzendaritzak konponduko du behin-behinekoz; gero, hala behar balitz, Beizamako Udalak; eta haren erabakiak indarrean berehala jartzekoak izango dira.

Bigarrena: Aurrekontua onartzen deneko dokumentuan aterpekideak zinatuko du honako Araudia ezagutu eta betetzeko konpromisoa hartzen duela.